

Kultura

Kalean, kulturagaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, bestek bestek, Elorriko Musikaire eta Durangoko Uda Kalean Bizi jaialdietan > 11-14



Ongi etorri Durangaldera

Kolore askotako lurraldea da Durangaldea. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Espainiako Estatuko herritar asko etorri ziren lanera, eta gaur egun gauza bera gertatzen da mundu osotik etorritakoekin. Euren bidaiatz eta hona egokitzeaz berba egin dute Robertok, Basik, Camilok, Petrak, Christianak, Mohammedek, Martak eta Hailingek. > 2-3



Euskal pilotuek Ricardo Triviño izango dute arerio, bihar, Bizkaiko Balkoia rallyan

Munduko Txapelketan ibilbide luzea izan duen Ricardo Triviño pilotu mexikarrak Bizkaia Balkoia rallyan parte hartuko du, bihar. Peugeot 206 WRC autoaren bolantean proba irabazteko hautagai nagusietako bat izango da. Eguaztenean, ibilbideko tartekak aztertu zituen, eta "politak bezain konplikatuak" iruditu zaizkio. Ibilbideari dagokionez, aurtengo nobedade nagusia da rallyko lau tartetako bat berria dela: Trabakua gaineko Gereaa auzoan hasi, eta Bolibarren amaituko da tarte hori. > 17



IURRETA INSTITUTUA
Tel.: 94 466 8800
www.iurreta-institutua.net

MATRIKULA EPEA
uztailaren
16tik 21era

ARRETA SOZIOSANITARIOA
INFORMATIKA
ADMINISTRAZIOA
ELEKTRONIKA
FABRIKAZIO MEKANIKOA

MEREZI DU GUREKIN BIDAIATZEA

Durango > 4

Kirolene Murotatorrera lekualdatuko dute

Elorrio > 8

Urquijok Auzitegi Nazionalaren esku utzi ditu Buruagaren berbak

Durangaldea > 6

'Herriko tabernak' babesteko deia egin dute mobilizazioetan

Garai > 8

Epaitegiak erabakiko du Ametxorberen jabea nor den

Herririk herri

Migrazioak: industrializazio sasotik gaur egunera, hamaika koloreko Durangaldea

Industrializazio sasoiaren eta gaur egun etorritako zortzi herritarrek euren esperientziak kontatu dituzte

ERREPORTAJEA M. Onaindia
1960ko eta 1970eko hamarkadetakako industrializazioaren eraginez, Espainiako Estatuako milaka lagun etorri ziren beharrera Euskal Herrira, eta Durangaldea izan zen migrazio horren kasu adierazgarrienetakoa bat. Hamarkada batzuk geroago, bizitza hobe baten bila mundutik etorri den beste migrazio bat ezagutu dugu. Ondorioz, hamaika koloreko lurraldea da Durangaldea.

Industrializazio sasoiak migrazioak eduki zuen eragina

ulertzeko, 1986ko biztanleriaren datua argigarria da: Durangaldeko 50.000 biztanleetatik 11.000 estatutik etorritakoak ziren. Nerea Mujika ikerlari eta Gerediaga Elkartearen presidentek bere tesian emandako datua da, Durangaldea 1960tik 1991ra bizitako aldaketa fisiko eta demografikoaren ingurukoa.

Auzo gehiago

Durangaldea ez zegoen prest lanera etorritako pertsona guztiak hartzeko. Durangoko San

Fausto eta *Matadero* izenez ezagutzen den auzoak sortu ziren, eta beste eremu batzuk zabaldu egin ziren.

1986ko datua argigarria da: Durangaldeko 50.000 biztanleetatik 11.000 estatutik etorritakoak ziren

Populazioa, %79,8 gora
Durangaldea aldaketa sakona

bizi zuen, eta populazioa ikaragarri handitu zen. Izan ere, kanpoko migrazio horretaz gainera, barnekoa ere gertatu zen. Mujikaren tesiaren arabera, populazio hazkundea Bizkaiko batez bestekoa baino handiagoa izan zen. 1960tik 1991ra bitartean, %79,8 hazi zen Durangaldeko biztanleria (28.000tik 52.000ra), eta Bizkaikoa, ostera, %53,8. Durango eta Iurreta izan ziren etorkin gehien jaso zituzten herriak (guztira, 6.000 inguru), eta populazioa 12.000 biztanletik 22.000ra

igo zen hiru hamarkada pasa ostean. Mujikak azaldu duenez, Durangaldea enpresa ugari jaio zen, baina Eibar aldetik ere asko etorri ziren, batez ere Abadiñora. Eibarren ez zeukaten lur libre gehiagorik, eta, Durangaldea gertu dagoenez, hona etorri ziren hainbat enpresa.

Gizarteratzea, zelan?

Elkarbizitza eta gizarteratzea erronka ziren lehen, eta orain ere horrela dira. Erreportaje honetan parte hartu duten herritarrek azaldu dute ez dutela arazorik eduki atzeritar izateagatik, baina gizarteratzea alde bikoa izan behar dela esan dute hainbatek. Hau da, eurek ahalegina egin behar dutela, baina hemen sortutakoek ere euren ekarpena egin behar dutela.



Roberto Perez
Traña-Matiena (Abadiño). 63 urte. Jubilatua.

Euskara ederto darabilzu.
Santiago de Compostelan jaio nintzen, baina nire familia Leongo herri txiki batera joan zen txikia nintzela. Irakas-kuntza egin, eta Bizkaian lana soberan zegoela esan zidaten. Eskaera egin, eta Ajangizera heldu nintzen. Andre bati "Buenos días" esan nion, eta hark hemen *egun on* esaten dela erantzun zidan. Oposaketak gaintu, eta Matienan tokatu zitzaidan. Gero, AEKn hasi, eta 90ean EGA ateratu nuen. Hizkuntza integratzeko esparru garrantzitsu bat dela uste dut. Hausnarketa sakon bat egin behar genuke, Matienan hainbat familia ez direlako euskaraz ezer esateko kapaz.

Integratioak alde bikoa behar du, ezta?
Batzuek uste dute Euskal Herria maitatzeko zure sorterrria gorrotatu behar duzula. "Hemen hikuntza eta ohitura batzuk dauzkagu, eta nire laguntza praktikoa guztia edukiko duzu integratzeko", izan beharko luke hemengo jarraitzaileak.



Basi Romo
San Fausto. (Durango). 84 urte. Jubilatua.

Guadalajarako El Olivar herritik etorri zinen Durangora.

Lan ugari egiten genuen olibondo eta abarretan, eguzkitik eguzkira, baina diru gutxi zegoen. Senarra Durangoko tren geltokian hasi zen beharrean, osaba batek ekarrita. Handik urtebetera etorri nintzen, Nevers ikastetxean garbiketari lan egitera. Ez nuen ikasketarik egin, baina nire seme-alabek bai. Euren ikasketak egin dituzte, euskara dakite, eta horregatik pozik nago. Nire senarra Aranguren zen; antza denez, hemendik harantz migrazio bat egon zen lehenago.

Familia baten etxean eta izekoren etxean bizi ostean, San Fauston erosi zenuten etxea.

Durangarrak ikaragarri onak izan ziren nigaz, pena da kalean egoteko denbora askorik eduki ez izana! Auzokide asko familiakotzat izan ditut, asko lagundu diogu elkarri. Batzuei erosketak egiten nizkien, adibidez. Oso pozik bizi naiz hemen.



Camilo Puente
Iurreta. 71 urte. Jubilatua.

Zelan etorri zinen Iurretara?

1951n etorri ginen Ubidera, Ribadelagotik (Sanabria, Zamora). Herriko presa lehertu egin zen, eta jendeak ez zeukan nora joan. Gure aita, Legutiotik Bilbora ura eramateko obran lan egiten hasi zen. Obra amaitzean, ez zuen Bizkaitik irten gura; hiru ume zituen, eta berak zeukana baino bizitza hobea eman gura zien. Matienan pisu bat hartu zuen lehenik, eta gero Iurretan etxea erosi zuen. Paper fabrika hasi zen lanean. Ni Iurretako eskolan hasi nintzen ikasten, eta gero tailer batean ibili nintzen. Ez diot nire sorterriri uko egiten, baina ni hemengoa naiz.

Zelan sentitzen zara bertan?

Iurretan oso pozik nago. Hemengo jendeagaz beti oso ondo konpondu gara, asko maite izan gaituzte. Gure aitak Tellitun lan egin zuen, eta asko maite zuten. Euskara ez dut ikasi, eta nire errua ere izango da; nire seme-alabek eta ilobek bai, eurek euskara erabiltzen dute.



Petra Martín
Zornotza. 81 urte. Jubilatua.

1957an etorri zinen Ciudad Realetik. Zelan oroitzen duzu?

Ez ginen txarto bizi, baina nire hiru neba-arreba hemen zueden, eta nire aitak hona etortzea erabaki zuen. Hasieran, hilerri alboko auzoan hartu genuen etxea, eta gero Ogenbarrenan erosi genuen gure gaurko etxea. Nire senarra eta arreba ehungintzan hasi ziren lanean, baina ez zen ezer irabazten: 217 pezeta astean. Gero Izar enpresan ibili zen senarra, eta ni Forjas de Amorebietan. Greba baten ostean, bera ere gure enpresara etorri zen.

Zelan hartu zintuzteten zornotzarrek?

Ez dut kezarik elkarbizitzari dagokionez. Carmen Bernaola gogoratzen dut, adibidez. Denda zeukan etxepean, eta Durangorako autobusa hartu behar nuenean, dirua ematen zidan. Bestalde, inoiz ez didate zuzenean *maketa* deitu. Horrela izan bada, lepotik izan da. Ez daukat kezarik Zornotzarekiko eta Euskal Herriarekiko.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko ekainaren 26a,
13. urtea - 595. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Martínez de Arenaza
Yarza, Amaia Huarte Basabe.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





lurreta da, lehen zein orain, etorkin gehien jaso duen herrietako bat. Goretti Serrano

Euren ekarpena egin eta gizartea aberastu dutenetako zortzi lagun dira Roberto, Basi, Camilo, Petra, Christiana,

Mohammed, Marta eta Hailing. Lan egin, eta bertakoekin ahalik eta ondoen moldatzeko saioak egin dute. Gizarteratze lan

horretan, euretako batzuek euskara ikasi dute, adibidez. Sorterriari uko egin barik, Durangaldeko biztanle sentitzen dira.

Azken bi hamarkadetan mundu osoetik etorritako migrazioa eza-gutu dugu Durangaldean. Batez ere, Afrikatik, Hego Amerikatik eta Asiatik irtendakoak dira, lan bila etorritakoak. Guztira, herri guztiak kontuan hartuz gero, 5.396 daude erroldatuta, eta 60 herrialde baino gehiagokoak dira. Maroko, Senegal eta Errumania dira askoren sorterriak. Adibidez, Zornotzan 847 errumaniar bizi dira, eta Berri-zen 114. Durangon, 865 dira Afrikakoak, eta, herrialdeka, boliviarrak dira nagusi, 271. Txinatarrak, osera, 71 dira.

Bestelako herrialdeei kasu eginez gero, lurretan 44 nigeriar daude, Abadiñon 36 portugaldar bizi dira, eta Otxandion lituaniarrak zein danimarkarrak ere badaude.

5.396

dira Durangaldean erroldatutako estatuz kanpoko etorkinak

Abadiño: 373

Atxondo: 55

Berriz: 319

Durango: 2.127

Elorrio: 376

Garai: 5

Iurreta: 286

Izurtza: 20

Mallabia: 57

Mañaria: 36

Otxandio: 61

Zaldibar: 183

Zornotza: 1.498



Christiana Oris

Iurreta.
35 urte.
Pertsonen zaintzailea.

Zelan heldu zinen Euskal Herrira?

Nigeriatik Italiara bidaiatu nuen hegazkinez, eta handik Valentziara, 2003an. Valentzian krisia zegoen, eta, Euskal Herrian lana zegoela-eta, 2009an etorri ginen. Nire herrian Erizaintza ikasketak egin nituen. Valentzian eta hemen ikastaroak egin ditut, eta Astarloa egoitzan praktikak egin ditut. Hiru urtez nagusiak zaintzen egin dut lan, eta lana topatzen nabil orain. Euskaraz ez jakiteak zaildu egiten digu, baita beltza izateak ere. Kolorearena zaharren partetik izaten da batez ere; gazteak ondo nahasten dira. Jendea asko gustatzen zait, eta oso lasai sentitzen naiz. Durangon, Asociación de Mujeres con Futuro elkartearen nabil, krisiaren aurrean babesa ematen.

Ez zara nigeriar sentitzen, ezta?

Nigerian hainbat herri eta kultura daude. Gu, adibidez, kristauak gara. Gure herria Biafra da, eta haren askatasuna eskatzen gabilta.



Mohammed Larbi Albouhmi

Ermua. 40 urte.
Fruta dendako behargina.

Marokotik lurretako fruta dendara.

Tangerretik nator, baina berebera naiz, Arrifekoa. Duela sei urte etorri nintzen. Nire lehengusuak denda batzuk zabaldu zituen, eta bertan nabil beharrez duela laupabost urtetik. Hasieran jendeari kosta egiten zitzaion sartzea. Badakizu, begiradak-eta... Baina tratua eduki eta gero, kitto. Euskalduna oso atsegina da. Ez dut arazorik eduki, erlijioagatik ere ez. Orain ramadanean gaude.

Jende ugari egiten ditu erosketak...

Euskaldunak, pakistandarrak, berberak, espainiarrak, arabeak... Bakoitzak bere pentsaera dauka, baina ondo tratatzea da gakoa. Jendea pozik dago gugaz.

Eta euskara apur bat badarabilzu!

Ni euskaltegian ibili nintzen hilabetez, eta orain jendeagaz praktikatzen dut. Kartelak ere euskaraz ipintzen ditugu, udalak aukera eskaini zigulako. Gu ere berebera erabiltzen saiatzen gara Marokon.



Marta Parra

Elorrio.
33 urte.
Pieza muntatzailea.

Noiz etorri zinen Kolonbiatik?

2004an etorri nintzen. Kolonbian boluntariotzan zebilen elorriar batez gertatu hasi nintzen, eta, hona etortzeko arazoengatik, ezkontzea erabaki genuen. Haurdun geratu nintzen, eta Kolonbian egoera zaila denez, hemen geratzea erabaki genuen. Ordura arte ez neukan buruan Kolonbiatik irteterik. Gainera, lagunak eta familia han uztea kosta egiten da. Hemen bizitzea oso ona da, baina beti dut buruan bueltatzea. Azkenean, ez zara hemengo ez hangoa. Han gauza asko galdu dituzu, eta ez zara hango sentitzen.

Euskara ikasteak lagundu dizu, ezta?

Jende solidario eta atsegina zaretela ikusten da, baina kuadrillan sartzea asko kostatzen da. Gu gara gehien ahalegindu behar garenak, baina integrazio ekintza gehiago falta da. Euskarak ate asko zabalitzen ditu, eta AEKri asko zor diot, baita Berbalagun taldeari ere; ekintzen bidez, konturatu barik gizarrean sartzen zara.



Hailing Zhou Chen

Durango.
43 urte.
Ostalaria.

Panda jatetxea zabaldu zenuten.

1987an etorri ginen Durangora. Orain ez bezala, Txinan nahiko zaila zen lana topatzea, eta hemen lan egitea zen gure asmoa; bestela, zer egin? Batez ere ostalaritzan lan egin dut. 1994an, Panda jatetxea zabaldu genuen, eta hasieran kosta egin bazitzaigun ere, apurka-apurka ospea hartu zuen. Baina duela urte bi erre egin zen. Estimua handia nion jate-txeari, eta pena itzela hartu nuen. Bezero asko genituen. Gero Madalenan zabaldu genuen jatetxea, eta bizitzako beste etapa bati ekin genion. Zorrei aurre egiten gabilta orain.

Jaso al duzu inoiz irainik?

Ez, jendeagaz ondo konpondu naiz. Bestalde, atzerritarrentzat beti da gogorra gizarteratzea. Txinatarrak, gainera, beti gaude etxean edo lanean. Nik urte asko daramatzat hemen, eta gaztelaniaz berba egiten dut zerbait, baina batzuek ez dute ezer egiten. Askok Txinara bueltatu dira.

hitz #gomendioak

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT
LOREA GERNIKA,
ANDRAZKO BAT
Koldo Izagirre (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT
EUSKAL HERRIKO
HISTORIA ILUSTRATUA 2
Joseba Asiron eta
Martin Alzueta (2015)

MUSIKA
OMEGA
Enrique Morente
eta Lagartija Nick (1996)

11'90 €

McMenu Grand McExtrem ertain 2
Ospatu gurekin gure urteurrena

Eskaintza balagarria da McMenu ertainarentzat, Grand McExtrem Originalarentzat eta Grand McExtrem Baconarentzat, 2015eko ekainaren 15etik ekainaren 30era. Ezin zaio bestelako eskaintza edo promozioi gehitu.

Zure McDonald's Abadiño jatetxean bakarrik

Hauteslekua pilotalekuan egokitu ez izana kritikatu dute auzokide batzuek

Udalak dio San Faustoko pilotalekuak ez duela gutxieneko klimatizazioa bermatzen



San Faustoko pilotalekuaren aurrealdea.

DURANGO **Jone Guenetxea** San Faustoko auzokide batzuk kexu agertu dira maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetarako pilotalekuaren atarian hauteslekutzat egitura aurrefabrikatu bat jarri zutelako. San Faustoko bizilagun horiek pilotalekua leku egokitzat jotzen zuten, eta horrela jakinarazi zioten Hauteskunde

Batzordeari. “Alkateak lokal horri ezezkia eman zion, espazio erdi irekia zela argudiatuta eta baldintza klimatologikoen eragin zezaketelakoan; hormen faltan, euria sartu zitekeelako. Alkateak uste du pilotalekua ez dela auzokoa, eta pilota eskolarentzat bakarrik nahi du”. Era berean, auzokideek diote azpiegiturak balio zituen

5.742,13 euroak auzoan “hobe-kuntzak” egitera bideratu zitezkeela.

Klimatizazio arazoak

Auzokide batzuen kexa horrek udalaren erantzuna bando bidez jaso du. Udal arduradunek diotenez, Estatistika Institutu Nazionalak bitan banatu zuten auzo etxeko hauteskunde-mahaia, eta beste leku bat topatu behar izan zuten. Pilotalekuak, beharrezko probak egin

“Alkateak uste du pilotalekua ez dela auzokoa; pilota eskolarentzat gura du”

eta gero, ez duela gutxieneko klimatizazioa bermatzen ondorioztatu zuten. Gainera, udalaren arabera, auzo elkarteekin batzarrak egin dituzte pilotalekua kudeatzeko hitzarmena adosteko, “auzokoen aukera izan dezaten pilotalekua erabiltzeko eta disfrutatzeko”.

DURANGO **Markel Onaindia** EAJk eta PSE-EEK elkarrekin gestionatuko dute Durangoko Udala. Izan ere, Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Riosek gobernu akordioa sinatu zuten joan zen barikuan. Horren ondorioz, Ríos lehenengo alkateordea izango da –Mari Jose Balier jeltzalea bigarrena–, eta sozialistek batzorde bi zuzenduko dituzte: Gizarte Ekintza eta Enplegua Batzordea eta Berdintasun Batzordea. Durango Eraikitzen eta Durango Kirolak erakunde autonomoen ardura ere PSE-EEK edukiko du. Akordioagaz udalari “egonkortasuna” eman gura diote. 21 zinegotzietatik EAJk zortzi lortu zituen hauteskundeetan, eta PSE-EEK bi.

Prensa ohar bidez azaldu dutenez, hainbat gai adostu di-

Kirolene Muruetatorrera lekualdatuko dute

DURANGO **M.O.**

Eguaztenean konfirmatu zuen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak: Kirolene Durangon geratuko da. 2009an zabaldu zenetik, San Ignazio auzuneko eraikin zaharrean egon da, erreka alboan. Matrikulazioz eta mailaz goraka egin du, eta gaur egun 800 ikasle inguru ditu urteko. Ikastetxearen baldintzak hobetzeko, Muruetatorre dorretxean ezarriko dute.

EH Bilduk eskatuta eman zituen azalpenak Uriartek. Koalizioak kritikatu izan du gaur egungo egoitzaren baldintzak “tamalgarriak” direla, eta Uriartek lekuz aldatzeko beharra berretsi zuen agerraldian. “Egoitzak irisgarritasun arazoak ditu, eta aitortu behar da ez diola irudi onena ematen goi mailako ikasketak eskaintzen dituen zentro bati”.

Uriarteren arabera, udalak eta Kiroleneko zuzendaritzak Durangon geratzea eskatu zieten, eta horretarako leku egokiena Muruetatorre dela adostu dute. Landakoko kirolgunee-tatik gertu egoteari garrantzi handia eman diote.

tuzte datozen lau urteetarako. Adibidez, gizarte-ekintzaren eta enpleguaren arloetan aurrekontua %20 handitzeko konpromisoa hartu dute. Gainera, babeseko etxeak eraiki gura dituzte, alokairuko etxeen kopurua handitzeko. Hutsik dauden 1.500 etxeen kasuan, horiek alokairuan erabiltzeko programak sustatuko dituzte. Etxe kalera-tzeak gertatu aurretik identifikatu eta saihesteko partida bat ere gordeko dute.

Andragunea handitu

Ordenamenduz kanpo dagoen Sapuetxe eraikina botatzea eta Urki-Hegoalde saihebidia egitea ere aipatu dituzte.

Gainera, berdintasunerako partida %20 gehitzea hitzartu dute, Andragunea handitzeko.

Bi hilerik behin egingo dituzte osoko bilkurak

IURRETA **Aitziber Basauri**

Udalbatzak hilabete birik behin egingo ditu ohiko osoko bilkurak hasi berri den agintaldian, hileroko beharreen. Azkenengo eguaztenean izango dira, 19:00etan. Erabateko dedikazioagaz jarraituko du Iñaki Totorikaguena alkateak, eta bost udal batzorde egongo dira, eta bakoitzean sei kide. EAJk hiru ordezkari izango ditu, bi EH Bilduk eta PSE-EEK bat.

Alkateordeak izango direnak ere hautatu dituzte: Oskar Koka, Zorione Fundazuri eta Itxaso Garamendi. Amankomunazgorako udalbatzaren ordezkariak, berriz, Iñaki Totorikaguena (EAJ), Julian Gorospe (EAJ) eta Eskarne Jaio (EH Bildu) izango dira.

Argazki zaharren erakusketa eta berrien lehiaketa

ZALDIBAR **Itsaso Esteban**

Ilargi argazki taldeak antolatutako argazki rallyaren hogeita hamabigarren edizioa eta argazki zaharren erakusketa izango dira, asteburuan. Bihar eta etzi, udaletxean plazan egongo da herritarrek utzitako argazki zaharrekin osatutako erakusketa, eta domekan egingo dute rallya. Olazarren elkartuko dira rallyko partaideak, 08:30etik eta 09:30era, eta antolatzaileek emandako gaien inguruko argazkiak egin beharko dituzte. Beste herri batzuetako argazkizale helduek 10 euro ordaindu beharko dute izena emateko, eta 17 urtetik beherakoek eta zaldibartarrek doan hartu ahalko dute parte. Bost sari emango dituzte: 125, 100 eta 75 eurokoak izango dira lehenengo hiru sariak, eta 75 eta 50 euroko sari bereziak daude herriko lanik onenarentzat eta parte-hartzaile gazte baten lanik onenarentzat.

PSE-EEko Pilar Ríos alkateorde izango da

EAJk eta PSE-EEK gobernu akordioa sinatu dute



Irigoras eta Ríos, akordioa sinatzeko unean, udaletxean.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!



dagoeneko
%80
batina gehiago
salduta

azken aukerak ez galdu

ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuenaren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvias.es Sabadell/Guipeuzcoano **BS**

946 46 20 41 
www.sukia.com 

sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa

Herriko tabernak babesteko deia, konfiskatzeko erabakiaren aurrean

Konfiskazioaz gainera, sententziak motibazio politikoa duela uste dute elkarteek

DURANGALDEA M. Onaindia “Frankismoaren ondoren, arrazoi politikoengatik gertaturiko jabego konfiskaziorik handiena eta larriena da”. Irakurketa hori egin dute oraindik itxi barik dauden *herriko tabernen* ordezkariak, Auzitegi Gorenak 107 elkarte konfiskatzeko erabakia berretsi eta gero. Ondarea konfiskatzeaz gainera, sententziak

motibazio politikoa daukala uste dute: “Ezkerreko alternatiba politiko independentista lantzen eta bideratzen dabilen espazio fisikoa, kulturala, politikoa, erreferentziala da suntsitu nahi dutena”.

Durango, Elorrio, Zornotza, Otxandio, Zaldibar eta Mallabiko elkarteak daude auzian, ekimenak iragarri dituzte el-

karteak babesteko. Bihar, manifestazioa egingo dute Zornotzan, 13:00etan. Zaldibarren zortzi orduko elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan hasita, eta Elorrioren bertso saioa, 19:00etan. Gainera, Elorrioren, etzi, poteoa egingo dute, 13:00etan; Durangon, ordu berean izango da ekimena, eta, Otxandion, Libre Eguna antolatu dute.



Joan zen barikuan, hainbat mobilizazio egin zituzten. Irudian, Durangokoa.

Iheskide eta Skakeitan taldeen kontzertuak, bihar, Apatako jaietan

ATXONDO J. Derteano

Gaur, jaiei hasiera ofiziala emango dien Txopoa jasoko dute Apatan. Trikitilarien musikagaz egingo dute plazarainoko bidea, eta, 19:00etan, Txopo handia zein gaztetxoek txikia altxatuko dituzte plazan. Ondoren, herri afarian batuko dira, eta Oxabiren erromeriak girotuko du gau partea.

Bihar, Mozorro eta Kuadrillen Eguna izango da. Laguntaldeak paella-janean batuko dira, eta, gero, askotariko jolasak egingo dituzte jai giroan. Arratsaldean, Aulestiko batukada taldearen laguntzagaz herriko zehar poteoan ibiliko dira. Zapatua musikagaz agurtuko dute; 23:00etatik aurrera kontzertua eskainiko dute Elorrioko Iheskide eta Donostiako Skakeitan taldeek.

Domekan, emakumeen herri kirol erakustaldiagaz gozatu ahalko da. Lau emakume trontzan, ingude altxatzen, txinga eroaten eta lokotx biltzen ibiliko dira 19:00etatik aurrera.

Plater-tiro txapelketa antolatu dute

MAÑARIA M.O.

Uztailaren 4an, plater-tiro txapelketa jokatu dute Mañarian, Mugarra Ateneo Zinegetikoak antolatuta. Garaitorre jatxearen inguruetan izango da txapelketa, 16:30etik aurrera. Parte-hartzaile bakoitzak hamabost plater tirokatzeko aukera edukiko du, eta jokaldi

100 euro eta hainbat produktu gastronomiko eramango ditu etxera punteria onena duenak

onena egiten duena izango da garaile. 100 euro eta hainbat produktu gastronomiko eramango ditu etxera punteria onena duenak, eta beste hogeitabi sari ere badituzte prest sailkapeneko hurrengoentzat.

Federatutako afizionatuek ere jokatu ahalko dute, bereizitako maila batean. Lehenengo hamarrek txorizoak eta txakolina lortu ahalko dituzte, eta guztien artean eskopeta bat zozkatuko dute.

111 lagun egon dira neguko aterpetxean

DURANGALDEA M.O.

Amankomunazgoak etxe bakoitzat eskaintzen duen neguko aterpetxean 111 lagun egon dira aurten. Amankomunazgoak Errota aterpetxean hamar lagunentzako lekua alokatuta eduki du abendutik martxora bitartean, eta 19.700 euro erabili ditu horretarako.

Arduradunek azaldu duteenez, iazko datuagaz alderatuz gero, erabiltzaileen kopurua %9 igo da. 75 Espainiako Estatuak izan dira, eta iaztik hona %14 egin du gora naziotasun hori duten erabiltzaileen kopuruak.

Sakabanaketaren kontrako duatloia egingo dute

Txikien eta nagusien lasterketak egingo dituzte

ABADIÑO Itsaso Esteban

Euskal preso eta iheslari politikoaren etxeratzea duatloia batezagaz aldarrikatuko dute, Zelaietan, bihar, *Dispersioa Stop* leloagaz. 12 urte arteko umeen eta adin horretatik gorako lasterketak egingo dituzte, goizean.

Umeen lasterketa 10:45ean hasiko da, eta, lehenengo korrika eta ondoren bizikletaz, Zelaieta auzoan zehar buelta bi emango dituzte. Kilometro eta erdi ingurukoa da 12 urtera arteko parte-hartzaileentzat prestatu duten ibilbidea.

Amnistia plazatik abiatuko dituzte bai umeen lasterketa, bai 11:00etan hasiko den 12 urtetik gorakoena ere. Korrika lehenengo eta bizikletaz bigarren zatian, guztira bost kilometro egingo dituzte nagusiek: kilometro eta erdi egingo dute korrika, eta hiru kilometro eta erdi, ondoren, bizikletaz.

Umeek doan parte hartu ahalko dute ekimenean, eta 2 euro ordainduta eman ahalko dute 12 urtetik gorakoek izena. Txanporta plazan, 10:00etan egingo dute izen-ematea.

Aimar Irigoienaren erakustaldia, Goitan

San Joan jaiak ospatuko dituzte asteburuan, Goitan

MALLABIA Jone Guenetxea

Martitzenean ekin zioten Goita auzoko San Joan jaiei. Asteburura begira hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Gaur, esaterako, auzo afarian bilduko dira. Bihar arratsalderako, berriz, txinga eroate, patata tortilla eta asto proba lehiak aurreikusituzte.

Domekan, meza izango da goizean. Gazte Alai dantza taldearen txanda izango da ondoren. Dantzarien erakustaldien ondoren Aimar Irigoien gazteak harri-jasotzen egingo

du. Eguerdian berriz, paella txapelketaren inguruan bazkaria prestatuko dute. Arratsaldean, umeen jolasak, tute txapelketa eta bola joko txapelketako sa-

Domeka eguerdian, paella txapelketaren inguruan bazkaria prestatuko dute auzokideek

riak emango dituzte. Txokolatadagaz eta errifan zozketagaz amaituko dute.

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Chimeneas

Cerámicas **MACOBER**

Sanitarias

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

· Etorri ikustera ·



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrión aukera oso onak!



Durangoko herrigunean



*Energia-eraginkortasun
handiko etxebizitzak*



Hiriko txaletak



Oiz mendira begiratokiak



Leku zabalak

www.zarateyelexpe.com

Bixente Kapanaga, 19

Iurreta - Bizkaia

946 916 673

f Zarate eta Elexpe Eragileak SL.

Urquijok Auzitegi Nazionalaren esku utzi ditu Idoia Buruagaren berbak

Herriko presoak gogoan izan zituen Buruagak, alkate kargua hartu ostean



Idoia Buruaga, alkate izendatu zuten ekitaldian.

ELORRIO J.G./M.O.

Carlos Urquijok, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, Auzitegi Nazionalaren esku utzi ditu Idoia Buruaga (EH Bildu) Elorrioko alkateak

bere izendapen egunean eginiko adierazpenak. Ekainaren 13ko udal eraketako batzarrean, Buruagak berba egin zuen kargua hartu ostean, eta herriko preso politikoak gogoan izan

zituen berbaldian. Adierazpen horiekin “terrorismoa goratu” zuelakoan eman du epaitegira-

Adierazpen batzuekin “terrorismoa goratu” zuelakoan eman du epaitegirako pausoa

ko pausoa Urquijok. Hain zuzen ere, Auzitegi Nazionalako fiskal buruari eman dio adierazpenen berri.

Buruaga, “lasai”

Idoia Buruagak azaldu duenez, Urquijoren erabakia komunikabideen bidez ezagutu du, ez du ezelango jakinarazpen ofizialik jaso. Era berean, “lasai” dagoela adierazi du, eta ez duela uste auziak aurrera egingo duenik.

Hauteskundeetan zerrenda bozkatuena izan zen EH Bildurena, eta zinegotzietan berdindu egin zuten koalizioak eta EAJk. Herriaren Eskubidea abstenitu egin zen udalaren eraketan, eta, ondorioz, Buruaga izendatu zuten alkate.

Azoka kulturala egiteagaz batera, udan murgilduko dira elorriarrak

ELORRIO M.O.

XV. Azoka Kulturala egingo dute, bihar, Elorrion, antzina-ko objektuen bildumazaleen gozamenerako. Izan ere, alde batetik, auto eta motor zaharren erakusketa egongo da, eta, bestetik, numismatika eta filatelia arloko gaien salmenta. 10:00etan hasiko da azoka, eta 14:30era arte iraungo du. Agustín Urizar antolatzailearen esanetan, 25 bat auto zahar eta

Auto eta motor zaharren erakusketa, eta numismatika zein filatelia arloko gaiak egongo dira

hogei bat postu ipiniko dituzte plazan eta inguruetan.

Azokagaz Elorrioko Udak egitarauan murgilduko dira elorriarrak. Musikaire festibala, uztailaren 4ko Berri-Otxoa Eguna eta hilaren 5eko azoka ekologikoa izango dituzte, adibidez. Turistentzako ibilbideak ere prestatu dituzte.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RÍOS

SQ-2D



Iluntasuna itzuli da

Emanaldia amaitu zen, eta iluntasuna itzuli zen berriro politikara. Nire belarrietan burrunba egiten dute oraindik hauteskunde kanpainan entzundako hitzek: partaidetza, gardentasuna, gertutasuna... Eta modu berean egiten dute burrunba inbestidura saioan, irakurri zituzten berbek: “Alderdi guztiak hitz egin, negoziatu, paktuak egin...”, baina, sei egun igaro orduko, alderdi bi negoziatzen hasi dira, eta postuak euren artean banatu dituzte: alkateordeak, Informazio Batzordeak, erakunde autonomoak, enpresa publikoak, eta baita horien presidentetzak ere.

Baina hemen dago Herriaren Eskubidea, Durangoko egoera politikoan hiru zinegotzirekin eta 1.842 botorekin indarrez sartu den hautagaizta herritarra. Politika ilusioz eta gogoz egin nahi duten herritarrek, politika egiteko beste modu bat bultzatu nahi dutenak. Maiatzaren 24ko hauteskundeak agertoki ezin hobea utzi zuten politika berri integratzailer, parte-hartzaile eta garden baterako, eta, inbestidura saioan alkateak eginiko etorkizun handiko hitzaldiaren ostean, bazirudien posible izango zela, baina beldur naiz ez ote den aukera galdu bat izango hori ere. Hitzaldi horretatik sei egunera, hedabideen bitartez jakin genuen udala biren artean banatu zutela. Alderdi guztiak izaniko lehen bileran, suposatzen da, besteak beste, batzordeak sortzea eta horien osaketa direla berbagai. Hori da Durangon nahi dugun politika? Hori al da kontuan izatea herritarrek hautetsontzien bidez transmititu dutena? Hori da guztiei entzutea eta guztiak negoziatzea? Herritar gisa huts egin didate, eta elkarrizketak guztiok izan ditzagula eskatzen dut. Erregenerazio politikoa orain!

Epaitegiak erabakiko du Ametxorberen inguruan

Udalak Ametxorbe erosteko nahia berretsi du

GARAI Markel Onaindia

Garaiko Udalak Berrizko Ametxorbe mendia eskuratzeko nahia berretsi zuen duela aste biko udalbatzarrean, eta orain epaitegi batek hartuko du horren inguruko erabakia. Lurrak muga egiten du Garaigaz, eta bereganatzeko eskubidea duela uste du udalak, erabilera publikoa emateko. Baina lur hori Berrizko Aitor Biritxinagak erosi zuen 2014ko urrian. Horregatik, epaitegiak esango du nor geratuko den lurragaz.

Biritxinaga nekazaria da, eta txarto ikusi du Garaiko Udalaren jarrera. “Beste baso batzuk ere egongo dira salgai, niri kentzen hasi barik”. Ametxorberen inguruan ere hainbat lur dagoela esan du. Gainera, gogoratu du berak erositako lurra ez zegoela salgai; berak negoziatu zuen lehengo jabeagaz, ustiatzia zabalteko asmoz.

Biritxinagak azaldu du Garaiko udalbatzar bitan egon dela, eta ez diotela berba eginen utzi.

Herri afaria egingo dute, bihar, Momoition

Herri afariaren ostean, erromeria edukiko dute

GARAI M.O.

Asteburu honetan, Momoitioko San Joan jaiek aurrera jarraituko dute, eta, bihar, herri afaria egingo dute auzotarrek eta herritarrek. Trumoitte kultur elkarteak eta udalak elkarlanean antolatu dute San Joan jaietako egitaraua.

Bihar, 21:30ean ipini dute afarian batzeko hitzordua. Herri afaria ermitaren inguruetan egingo dute, eta, ostean, erromeria edukiko dute Izer taldeagaz. Beraz, gaupasa egiteko plana

aukeran edukiko dute Momoition batuko diren festazaleek.

Domekan ere egongo dira ekitaldiak. 11:00etan, meza izango dute, eta, ondoren, dantza saioa eskainiko dute, besteak beste.

Trumoitte kultur elkarteak eta udalak elkarlanean antolatu dute San Joan jaietako egitaraua

ALBERDI
HARATEGIA



Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

- Zornotzara ere heldu gara -

ETXEKO TXORIZO ONENAREN SARIA

2014-2015
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN MUNDUKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

2014 ELORRIKO BUZKANTZA JAIKO ODOLOSTE ONENA

Donien Atxa igota, gaur hasiko dituzte jaiak

San Pedro bezperatik jaien hasierara pasa dute Donien Atxa igotzeko eguna; Berasaluze izango da pregoilaria



Asteon, prentsaurrean aurkeztu dituzte jaiak.

BERRIZ Amaia Ugalde Gaur hasiko dituzte jaiak Berri-zen. 17:00etan egingo dute pregoi txikia, Pagotxa aisialdi taldeak antolatuta, eta, 19:00etan, pregoi nagusia, Pablo Berasaluze pilotariaren eskutik. Txosnak ordu erdi beranduago zabaldu eta gero, 20:00etan, Donien Atxa igoko dute dantzariak. Orain arte San Pedro bezperan igotzen zen Donien Atxa, eta, Jai Batzordean eztabaidatu ostean, jaien lehenengo egunera pasatzea erabaki dute, "jaien hasiera iragartzea delako Donien Atxaren esangura".

Paella artean, 1.600 lagun Egitaruan adin guztietarako eta gustu guztientzako ekitaldiak programatzen ahalegindu direla azaldu dute prentsaurrean.

Jaietako ekitaldi jendetsuenetakoa Kuadrillen Eguneko paella lehiaketa izaten da, eta, Orland Isoird alkateak azaldu duenez, aurtengo inoiz baino jende gehiagok eman du izena paella txapelketan: "1.600 pertsona inguru batuko gara, eta 75 kuadrillak eman dute izena".

Astebeteko jaiak Atsedean barik, gaurtik egunera arte izango dira jaietan, Berrizen. Egunerok erromeriak eta kontzertuak izango dituzte. Bihar, esaterako, Revolta Permanent, Seiurte eta Gora Herria taldeek kontzertua eskainiko dute txosnagunean. Uztailearen 1ean, Brea Berrizko rock taldeen elkartearen eskutik, Etsipen, Kohatu eta Tres41 igoko dira agertokira.

Euskal gazteak automozioaren abangoardian, AICren babesagaz

ZORNOTZA J. Derteano Zornotzako AIC-Automotive Intelligence Center enpresaren sostenguari esker, Bizkaiko eta Gipuzkoako talde bik Formula Student programak sustatzen duen txapelketako hainbat probatan parte hartuko dute aurtengo. Astelehenean aurkeztu zituzten aurtengo ibilgailuak AIC enpresaren egoitzan. Formula Student egitasmoaren helburua automozioaren inguruko talentu gazteei euren dohainak garatzeko aukerak eskaintzea da.

Formula Student Bizkaia taldea Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle talde batek osatuta dago. Uztailearen 9tik 13ra Ingalaterrako Silverstone zirkuituko probetan parte hartuko dute, eta, abuztuko azken asteburuan, Kataluniako Montmeloko probetan ibiliko dira. Aurtengo ibilgailuaren berrikuntzarik nabarmenena xasisean dago: egitura osoa karbono-zuntzagaz eraiki dute.

Gipuzkoako Tecnum Motorsport taldea Nafarroako Unibertsitateak Donostian duen fakultateko lagun-talde batek gidatutako proiektua da. Montmelon eta uztaileko azken asteburuan Alemaniako Hockenheim zirkuituan jokatu diren probetan parte hartuko dute. Ibilgailuari dagokionez, fidagarritasuna izan dute helburu eta iazkoagaz alderatuta pisuaren %10a ere kendu diote.

Su txikiak nonahi, San Pedro bezperan

OTXANDIO J.D.

Otxandion badago ohitura bat beste inon parekorik ez duena. San Joan bezperan ez ezik, San Pedro bezperan ere suak pizteko usadioa dago. San Joan bezperan etxeko atarrietan eskegitako lizar adarrak erreko dituzte. Helburua San Joan suen berbera da: etxekoak babestu, eta espiritu eta bestelako seinale txarrak uxatzea.

Urtero, baserri askotan zein herriguneko auzoetan errepi-katzen den ohitura da. Aurtengo ere, herriguneko sei gunetan piztuko dituzte suak, domekan, San Pedro bezperan.

Lau kartel aurkeztu dituzte lehiaketara

IZURTZA J.D.

Orain hilabete, Izurtzako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa abiatu zuen udalak, eta joan zen barikuan amaitu zen proposamenak aurkezteko epea. Aurtengo aldirian lau proposamen jaso dituztela jakinarazi dute udal arduradunek.

Orain, irabazlea aukeratzeko prozesua jarriko dute martxan. Datozen egunetan, epaimahaia izateko ardura duen kultura batzordea eratu dute, eta, ondoren, batzorde horrek jasotako proposamen guztiak baloratuko ditu, irabazlea zein den aukeratzeko.

> DURANGALDEA ASTEON

Jaietako musika aukeratzeko deia

DURANGO > Aurtengo jaietan zer kontzertu antolatu. Hori da Durangoko Udalak bere webgunearen bidez eman duen aukera. Herritarrek hiru eskaintzaren artean aukeratu ahal dute: Enkore eta Betagarri, Hesian eta Itziarren semeak, edo Kaotiko eta Txapel-punk. Uztailearen 1era artekoa da bo-toa emateko epea.

Txintxirri ikastolak irudi berria du

ELORRIO > Txintxirri ikastolak logo berria estreinatu du. Irudi berriagaz ikastolak "hobetzeko duen etengabeko gogoia" islatu gura izan dute, Zuriñe Zorrozuaz zuzendariaren berbetan. Ikasle guztiek parte hartu dute sortze prozesuan, bakoitzak bere neurrian: "Logo berriaren gure ikasle bakoitzaren zati bat dago".

Sexu askapenari buruz, Zornotzan

ZORNOTZA > Gaur, 18:00etan, Kitzikan sexu askapenerako gazte antolakundeko kideek hitzaldia eskainiko dute Ziztada gune askean, hau da, Zornotzako lokal okupatuan. Kitzikan sexualitatea eta ekin-tza politikoa bateratzen dituen proiektua da, eta aurtengo ur-tarrilean sortu zen.

Iritzia

Ez obeditu!

Zorionez, gero eta gehiago gara ez obeditu eta heteroaraua plazerez lehertzeko hautua egiten dugunak. Eta ez gara soilik lesbiana, ez. Ekainaren 28a ez da soilik gay, lesbiana eta transexualen eskubideen aldeko eguna, ez. Heteroarauak denok inplikatzeko gaitu. Denok gara heteroaraua ahultzeko eta piztatzeko pertsonaia potentzialak. Denok daukagu armairutik ateratzeko zerbait!

Halere, ezin ukatu, ez obedientziaren aurrean, erasoak hainbat lekutatik igortzen zaizkigula: azkenaldian, Euskal Herrian gertaturiko kaleko eraso homofobo ugari salatu nahiko genituzke, eta baita Espainiako Gobernu ultra eskuindarrak, krisiaren aitzakiapean-edo, egindako erreforma eta bultzatutako neurriak ere.

Sexualitate hegemonikoaren edozein

arau-hauste dugu ezinbesteko bidean aurrera jarraitzeko, eta horretan herritar orok badugu zer egin. Beraz, ez dugu obeditu, eta, muxu, begirada, koxka, masaje, mimo eta laztan bakoitzean, plazerez leher-tuko dugu heteroaraua. Bilgune Feministak praktika desobedienteen bildumatxo bat egin du. Txikia eta amaitu gabea! Zuek osatzeko zain!

Sexualitateari, plazerari, dimentsio politikoa emateko saiakera erabatekoa izan dadin segi behar dugu. Obedientzia izan dugu gure heziketaren oinarri, baina ez obeditzen ere ikasi dugu! Ekainaren 28an eta gainontzeko egunetan, irudimena erabiliz, ekin desobedientziari!

Ez ahaztu: denok dugu armairutik ateratzeko zerbait...

Gora borroka feminista! Intxaurre libre!



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Iñigo Arruabarrena | Tximitxarte kontsumo taldea | Elorrio, 1989

“Eskaria dagoelako sortu dira gero eta kontsumo talde gehiago”

Sasoian sasoiko bertako produktu ekologikoak saltzen dituen Tximitxarte kontsumo taldea sortu dute



> BERBAZ Aitziber Basauri Aramaioko Tximitxarte base-
rrian ekoizten ditu produktu ekologikoak Iñigo Arruabarrena. Otarreak prestatzen dituzte sasoian sasoiko bertako produktuekin, eta kontsumitzaileei helarazten dizkiete. Martxoan sartu zen egitasmoan, eta hamar kide ditu Tximitxarte kontsumo taldeak. Horretan hiru urte daramatzen Asier Agirregaz lan kooperatiba sortu guran dabil, ekoiztutakoak bideratzeko. Azpiegiturak hobetzen eta negutegiak gehitzen dabilta.

Tximitxarte kontsumo taldea aurkeztu berri duzue. Nola sortu da egitasmoa?

Nekazaritza ingeniari teknikoa naiz, eta produkzio ekologikoaren aldekoa. Baina, ikasketek bide konbentzionaletik eramaten zaituztete, hau da, fitosanitarioak, herbizidak... erabiltzera bideratzen zaituztete. Produkzio mota intentsibo horregaz sekula ez naiz ados egon, eta Asierrek aukera hau eskaini zidan.

Gero eta zabalduago dagoen kontsumo mota da hori. Gero eta gehiago gabilta hone-

tan, eta horri positiboa deritzot. Jenteak produktu ekologikoa kontsumitu gura du; eskari bat egon delako eta dagoelako sortu dira gero eta kontsumo talde gehiago.

Durungaldean dauden beste kontsumo talde batzuekin hartu-emanetan jarri zarete?

Hasiberriak gara, eta denak emanda gabilta lanean. Baina Elorrioko produktore bategaz egon naiz hartu-emanetan, eta Iurretan era ekologikoan dabilen beste bat ere ezagutu nuen, ikastaro batean. Ez dugu denbora askorik izan hartu-emanetan jartzeko, baina gauzak lortzeko batzearen aldekoa naiz: barazkiak uzteko lokal bat lortzeko, eskoletako jantokiek bertako barazkiekin lan egiteko catering

“*Kontzienteago eta gutxiago kontsumitze aldera eman behar ditugu pausoak*”

enprekin beharrean... Hori guztia positiboa litzake.

Ez zarete saldu-erosi operazio horretara mugatzen. Bestelako filosofia bat dago atzean...

Era kontzienteagoan eta gutxiago kontsumitze aldera eman behar ditugu pausoak. Era berean, uste dut beharrezko dela guretzat, naturarentzat zein ekonomiarentzat onuragarriak ez diren nekazaritza produkzio moduak aldatzea. Bertatik guretzat izango den zerbait egin dezagun; gure arteko ekonomia sustatu dezagun.

Lehen sektoreari lagunduko lioke horrek.

Bai. Azken finean, ekoizleak zuzenean ematen dio kontsumitzaileari; bitartekoak kentzen ditugu. Diru sarrera guztiak zuzenean gugana datoz, tartean ez dago zati bat eramango lukeen hirugarrenik. Lehen sektorearentzat eta baserriarrentzat oso positibo da. Izan ere, gero eta produktore gutxiago daude; ekoizle txiki gero eta gutxiago daude, produktore handien mesedetan. Bestalde, nekazaritza ogibide hartu gura duten

gazteek eskatutako betebeharrak guztiei aurre egiteko laguntza gehiago behar dituzte.

Elikaduraren subiranotasuna dago oinarrian...

Hori da gure filosofia. Ahal den heinean, jaten duguna guk produzitutakoa izan dadila, gertutik etorritakoa izan dadila.

Jaten dugunaren inguruan gero eta kontzientzia handiagoa hartzen gabilta?

Oraindik, gehiengoak kontzientzia ez den modu batean kontsumitzen du. Baina gero eta jende gehiago arduratzen du zer jaten duen eta hori nondik datorren jakiteak. Eta positiboa dela uste dut. Badago jendea sakrifizio txiki bat egiteko prest dagoena bertako baserriarren alde. Adi-

“*Naturatik deskonektatuta bizi gara; ez gara kontziente naturaren zikloez*”

bidez guk otarre itxiak egiten ditugu. Kontsumitzailea prest dago otarra hartu, eta jarritako barazkiak kontsumitzeko.

Horrek ohitura aldaketa eskatzen du.

Naturatik guztiz deskonektatuta bizi gara. Ez gara kontziente naturaren zikloez, ez dakigu naturak zer ematen digun saso bakoitzean. Herritarrek erosotasun horretara ohitu dira, denetarik dute urte osoan. Baina askoz osasuntsuagoa eta logikoagoa da sasoian sasoikoa jatea. Udan, adibidez, tomateak, letxuga, tipulina eta kalabazina jartzen ditugu otarreetan, eta, egia esan, gorputzak horrelakoak jatea eskatzen du. Neguan, berriz, babak eta azak, esaterako, jaki sendo eta beroagoak. Kontsumo hori logikoagoa da.

EHNEn arabera, hemen kontsumitutako hamar barazkitik bederatzi dira kanpokoak.

Aipatutakoaren haritik dator hori. Tomateak otsailean kontsumitu gura ditugunez, Maroketik eta Andaluziatik ekarri behar ditugu, eta ezin ditugu hemen produzitu.

Kontsumitzailearen eta ekoizlearen arteko hurbiltasunak erakartzen du jendea?

Horrela da, bai. Jaten ditugun barazkiak nork ekoizten dituen jakin gura izaten dute herritarrek, baita bertako kultura bermatzen dabilela ere. Gainera, bertako baserriarrok kalitate oneko jeneroa produzitzen dugu, osasuntsua eta gai kimikorik gabe. Horrek erakartzen du.

Zelan egiten duzue lan Tximitxarte kontsumo taldean?

Hiru otarre tamaina ditugu: txikia (30 euro), ertaina (45 euro) eta handia (60 euro). Asteazkenetan, nahi duten otarra jasotzen dute kontsumitzaileek etxean. Hilero ordaintzen da kuota banku bidez. Arrasaten 30 kide ditugu –Asierrek denbora darama han–, eta Elorrioren hamar gara. Hemen hasi berri gara, eta oso pozik nago, egia esan.

Durungaldera zabaltzeko asmorik?

Batez ere, Arrasate, Aretxabaleta eta Bergara inguruan gabilta lanean, eta, Gasteiztik ere izan dugu eskaririk. Durungaldean, Elorrioren jardungo dugu momentuz. Dendetara ere zabaldu gura dugu. Produktuak komertzializatze bide bi horiek erabili gura ditugu: kontsumo taldeak eta dendak.

Uztailean, parkeetara eta plazetara aterako dituzte kultur emanaldiak

San Agustin kulturgunetik kalera aterako dituzte, uztailean, ikuskizunak



Prensaurrekoa egin dute, asteon, egitaraua aurkezteko.

> EGITARAUA Itsaso Esteban Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko arduradunak eta Aitziber Irigoras Durangoko alkateak aurkeztu dute, asteon, uztailean arte eszenikoen emanaldiak aretotik kalera aterako dituen Uda Kalean Bizi egitaraua. Musika, zirku eta dantza garaikideko ikuskizunak dira, doan, Durangoko plazetan eta parkeetan eskainiko dituztenak.

Arantza Arrazolak adierazi du, “sei pieza oso delikatu” direla aurten Durangora ekarriko dituztenak. Hain zuzen, “formatu txikiko oso proiektu berezia delako”. Uztailaren 9ko Germán Díaz musikariaren saioa azpimarratu du Arrazo-

lak: “Bihotzen taupaden erritmoak oinarri hartuta sorturiko musika” eskainiko du Diazek, Kuruzesantu Museoko berdegunean. Musikagaz jarraituz, Chicagotik Andra Mariko elizpean kantatzera etorriko den Velma Powell blues abeslariaren kontzertua ere azpimarratu dute aurkezpenean.

Eskualdeko uzta

Endika Salazar eta Barbara Govan Durangaldeko sortzaileen *Spazi...o* ikuskizuna, eta Javier García *Mimo* zaldibartarraren *Eskobien atzetik* lanak ikusteko aukera ere badakar Uda Kalean Bizi programazioak. Uztailaren 11n, malabareak eta akrobaziak egingo dituzte Dikothomia taldeko Salazarrek eta Govanek, eta, uztailaren 19an, ume zein helduei zuzenduriko emanaldia eskainiko du Garciak.

Kubako erritmoekin hasi eta amaituko da programazioa: uztailaren 3an, D’Capricho bi-

kotearen kontzertua izango da, eta uztailaren 25eko Durangoko Kriskitin eta Kubako Camagua taldeen dantza saioak itxiko du aurtengo edizioa.

Uztailaren 24an, bestalde, Leioako iazko Umore Azokan eta aurtengo Feten lehiaketan ere saritu duten Rudo ikuskizuna eskainiko du Manolo Alcántara ekilibrista kataluniarrak, Durangon. Zuzeneko musika du ikuskizun horrek.

Uztailaren 3an, 20:30ean, **D’Capricho**, Tabira parkean

Uztailaren 9an, 20:00etan, **Germán Díaz**, Kuruzesantu Museon

Uztailaren 11n, 20:00etan, **Dikothomia**, musika eskolako parkean

Uztailaren 16an, 21:30ean, **Velma Powell & Bluedays**, Andra Marian

Uztailaren 19an, 19:00etan, **Cia Barré**, udaletxeko plazan

Uztailaren 24an, 20:00etan, **Manolo Alcántara**, musika eskolako parkean

Uztailaren 25ean, 20:30ean, **Durango Folk**, Santa Ana plazan

Daniellis eta Danieuris Moya Ávila | D’Capricho bikotea |

“Kontzertuetan, beti topatu dugu arretaz entzun gaituen jendea”

Uztailaren 3an, Durangoko Uda Kalean Bizi zikloa zabalduko dute kubatarrek

Duela bi urte Bi D-ak izenagaz egin zenuten bira. Orain, D’Capricho izenagaz zatozte.

Danieuris: Egia esan, izen aldaketak ez du esan gura ezer aldatu dugunik; gure erreperatorioa handitzea da denbora honetan egin duguna. Aurrerantzean, gure ibilbide osoaren isla D’Capricho izatea gura dugu, eta disko bat prestatzen gabiltza helburu horregaz.

Zelan hartu izan zaituzte bi urteotan publiko euskaldunak?

Daniellis: Leku askotan jotzeko aukera izan dugu, eta beti eskuzabal hartu gaituzue.

Danieuris: Ez dugu agertoki handirik behar, entzun gura gaituen jendea bakarrik. Esan digute oso energia ederra transmititzen dugula kontzertuetan, eta horrek diruak baino askoz gehiago balio du. Euskaldunak eta kubatarrek oso desberdinak gara gauza askotan, baina lotzen gaituena oso da indartsua: elkartasuna, esaterako.

Daniellis: Askotan esaten dugu euskaldunak hotzak zarete, baina, asko mugitu ez arren, entzuleen begietan ikusi dugu berotasuna. Lehenengo kontzertutik, beti topatu dugu egi-

ten duguna arretaz entzuten duen eta ulertu gura duen jendea. Artistak hori du elikagai.

Hango eta hemengo poeten berbei askotariko erritmoak ipintzen dizkiezue kantetan.

Danieuris: Askotariko doinuak darabilzkigu, eta, hain zuzen, hainbat generogaz esperimentatzeak asebetetzen gaitu gehien. Gure mundu musikaletik kanpo dagoenagaz esperimentatu nahi dugu, proba egin.

Erreperatorioaren parte bat euskaraz duzue, gainera.

Danieuris: Bai, horrela da. Eta errespetu handiz egiten dugu, badakigulako mendetan, eta asko borrokatuta, mantenduriko hizkuntza dela euskaldunena. Hizkuntza hain eder eta musikalean gure aletxo eskaini nahi genuke.

Zelakoa izaten da zuen sorkuntza prozesua?

Daniellis: Piano klasikoa ikasi genuen biok, baina nire ahizpa da kantak konposatzen dituen, bera da kanten egilea.

Zein izan da zuen ibilbidea?

Daniellis: Danieuris musika

irakaslea zen, baina egun batean ohartu zen, irakasle izan beharrean, sortzea zela nahi zuena. Eta horrela ekin genion.

Danieuris: Ibiliak gara kubako tradizioko erreperatorioa lantzen duten taldeekin kantatzen. Maite dugu musika tradizionala, baina kontziente gara hori eginda etorri zaigula. Badago oraindik egiteke dagoen musika: kubatar musika berria.

Kuban eta Euskal Herrian, bietan nahi duzue garatu zuen proiektua?

Daniellis: Bietan nahi genuke jardun, bai. Kubatarrek gara, ahizpa han bizi da, eta nahi genuke kubatarrek gure proposamen musikala ezagutzea. Orain, Euskal Herrian bizi naiz, Berrizen, eta oso pozik nago: hemengo gizon batez gaitu nintzen, eta horrek ekarri ninduen hona.

Durangon baino lehen, hain justu, Berrizen joko duzue.

Danieuris: Bai, Berrizko jaietan abestuko dugu, uztailaren 2an, 18:00etan. Askotariko emanaldia eskaini nahi dugu, eta publikoaren arabera moldatuko dugu erreperitorioa.



Uztailaren 2an, 18:00etan, Berrizko jaietan ariko dira.

Diskoa prestatzen zabilzate?

Daniellis: Bai, hainbat material daukagu esku artean disko bat kaleratzeko.

Danieuris: Tartean, hiru euskal idazleren poesian oinarriturik egin ditugun kantak daude. Kubako poesiagaz egin genuen bezala egin gura izan dugu: oso gogoko ditugun olerki horiek musikatu, eta bestelako musika estiloekin ere probatu.

Daniellis: Euskal Herrian, lehenengo bira egin genuen,

Jon Gerediagaren eta Joseba Sarrionandiaren olerkietan oinarrituriko hainbat kanta ekarri genituen, eta jendea asko gustatu zitzaizkion. Bira kontzertu baten ostean, Miren Agur Meabe idazlea etorri zitzaigun, eta zera esan zigun: “Neure testuei musika ipintzea falta zaizue!”, eta ahizpa haren liburuagaz bueltatu zen Kubara. Euskal Herriko hiru emakumezko poetaren olerkietatik sortu dira hamar kantok.

Bolero ezagunak kantatuko dituzte, biolontxeloak lagun

Gehi Zazpi taldeak eta kantu ikasle laukoteak kontzertua emango dute, Durangon



Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan abiatu elkarlana da proiektua bultzatu duena.

> MUSIKA Itsaso Esteban Bolero ezagunekin osaturiko errepertorioa eskaintzeko elkartu dira Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan sorturiko Gehi Zazpi biolontxelo taldeko kideak, eta Jasone Turunbai, Bidane Txopitea, Edurne Egia eta Iratxe Uribelarrea kantu ikasleak. *Bésame mucho*, *Capullito de Alelí*, *Acercate más*

eta *Historia de un amor* kantak prestatu dituzte, esaterako. Uztailaren 2an, 19:30ean, Duran-

Durangoko estreinaldiaren ostean, uztailaren 4an, Eskoriatzako Huzezi fakultatean kantatuko dute

goko Kuruzesantu Museoan eskainiko dute, lehenengoz, jendaurreko emanaldia.

Durangoko estreinaldiaren ostean, uztailaren 4an, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko klausuroan izango dira, eta aurrerantzean ere joko dute. Udazkenean, Markinan eta Tolosan izateko eskaintza jaso dute, esaterako.

Amatzako I. Trikiti Jaialdia egingo dute, uztailaren 3an, Iurretan

Sei trikitilari bikote gonbidatu dituzte Iurretako Amatzako auzoko jaietan jotzera



Hainbat trikiti txapelketa irabazitakoak dira Elizagoien ahizpak.

> MUSIKA

Iurretako Amatzako auzoko San Martin jaietarako antolatu dute, uztailaren 3an, Amatzako I. Trikiti Jaialdia. Barikuan, auzoko jaietako hasiera emateko, Donien Atxa igoko dute, 19:00etan, eta 20:00etatik aurrera eskainiko dute sei trikitilari bikotek ordubete inguruko emanaldia.

Jaietako, Donien Atxa 19:00etan ipini ostean, 20:00etan hasiko da Amatzako I. Trikiti Jaialdia

Jendearen ekarpenetatik lortu dute 'Argi' egiteko dirua

> ZINEMA

Argi film luzearen grabaziorako dirua lortzeko abiatu bidezko finantzaketa kolektibo bidezko kanpainagaz 5.000 euro lortzeko helburua zeukaten proiektuaren bultzatzaileek. Asteon, kanpaina hori amaitzeko bost egun falta zirela, dagoeneko lortuak zituzten 5.325 euro. Filmaren grabaziorako beharrezko materiala alokatzeko, eta garraio eta elikadura gastuak ordaintzeko erabiliko dute herritarrek emandako dirua. Denetara, 8.000 euro inguruko aurrekontuagaz gauzatuko dute proiektua. Teknikoak eta aktoreak gehituz gero, 50 profesional inguru dabilta proiektu honetan kolaboratzen.

Uztailean, Elorriion grabatuko dute *Argi* filma. 1960ko eta 1980ko hamarkadetan kokaturiko film luzea da Iratxe Mediavilla elorriarrak zuzendurikoa, neskato zenetik, *Argi* izeneko protagonista ausartaren istorioa kontatzen duena.

Ansorregi eta Larrañaga, Harkaitz Allur eta Miren Errasti, Elizagoien ahizpak, Landa eta Antxitte, eta Lierni Aranburu eta Mireia Ibabe trikitilari bikoteak gonbidatu dituzte Iurretako jaialdi horretan jotzera.

Gipuzkoarrak dira jaialdiko parte-hartzaile gehienak, eta nafarrak dira, aldiz, hainbat txapelketa irabazitakoak diren Elizagoien ahizpak. Oso gaztetatik jotzen dute nafarrek trikitixa.

Arkaitz Allur eta Miren Errasti gizon-emazteek osaturiko bikotea, elkarrekin jotzen urte asko darameten Ansorregi eta Larrañaga, eta Izer eta Lutxurdio bikoteak ere gonbidatu dituzte. Baita trikitilari gazteek osatutako beste bikote bi ere: Landa eta Antxitte, eta Lierni Aranburu eta Mireia Ibabe. Elkarrekin joko dute hamabiek emanaldiaren amaieran.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Etxe bat baino gehiago

Zenbat gauza pilatzen dira etxe batean? Zenbat kutxa behar dira etxe-aldatze bat egiteko? Zenbat esku batetik bestera lekualdatzeko?

Zenbat hitz ezkututzen dituzte paretek? Zenbat barre? Zenbat negar? Zenbat, zenbat, zenbat... bizipen?!

Eraikin bakarrean gurutza daitezke ehunka pertsonen begiradak. Eraikin bakarra izan daitezke horien guztien bizitzen lekuko; lehen urratsetik azken hatsera arte. Biderkatu bakarra den hori eta egin berreketa; esponentziala da gehiketa.

Diruaren sokak urkatzen gaitu egunero, eta kapitala ez da asetzen familia osoak estalpe gabe uztearekin. Era berean, politikaren sokak ere etxe hutsen erroldan izena ematera batu dira; frankisten oinordeko den txotxongiloen orkestrak sententziaz mozorrotu du egun argiz eta denon bistara egitera doan lapurreta masiboa.

Legea eta justiziaren arteko arrakala sakontzen profesional dabilta; urratsez urrats, amaierarik gabeko zulo beltza eraiki dute. Erroak ustelak dituenak ezin bestelako usainik hedatu.

Kolpez kolpe ezabatu nahi gaituzte, hala ere, eskubide zibil eta politikoak ez dira lurruntzen; aitzitik, indartuta egiten dute aurre. Hain zuzen, erantzun horretan batzen direlako herritarrek, elkarrekin. Bilgune horretan, gutako bakoitzari eskua luzatzea dagokigu, eta denok, maila berean, parez pare jarrita erantzutea.

Mugarik ez da elkartasunerako, ezta konpromisorako. Hemen argi dago muga egutegientzat soilik dela; ez baita berdina "aro berria" han edo hemen.

Atzo, gaur, asteburuan eta aurrerantzean ere: #HerrikoakLibre.

uda kalean bizi 2015
san agustin kultur gunea kalean

Son en sus poemas D'Capricho Habanatik

Uztailak 3, ostirala 20:30 - Tabira parkea

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK OSTIRALERA

PLATERUEN PLATERAK
Emakoen Entseolortak Emakoi Pilzirik Postreak

EKAINAK 26
21:30ean **BART...SAX!**
SAX BIG BAND & BEAT SALAD

EKAINAK 27
19:00etan **JORGE ETA DEIENE**
DANTZA ESKOLA DANTZA



MILIA

BALIEZZ

- 1.000 HARPIDEDUN ZORNOTZAN -

HARPIDETZA

Harpidedun egiteko honako 4 aukera hauek dituzu:



Nigerreko 'Bombino' gitarristak zabalduko du Elorrioko Musikaire

Uztailaren 3an hasi eta 26ra bitartean, musika, dantza eta antzerkia aire librean eskainiko dute, Elorrioren

> MUSIKA Itsaso Esteban

Bere musika *desertuko rocka* estiloaren barruan kokatzen duen Omara Moctar *Bombino* musikariak eta bere bandak zabalduko dute, uztailaren 3an, Elorrioko XVIII. Musikaire jaialdia. Nigerreko tuareg kulturaren hazitako gitarrista bertuosoa da Bombino, eta musika tradizionala rock eta blues doinuekin uztartzen du.

Musikagaz jarritako beste zortzi hitzordu, eta hainbat antzerki eta dantza emanaldi ere jasotzen ditu jaialdiaren egitarauak. Tola, Lariz eta Casajara jauregietan, Sortzez Garbiaren elizpean eta plazan izango dira emanaldiak.

Datorren asteburuan, hiru egunetan izango dira emanaldiak: Bombino eta bere taldearen kontzertuaren ostean, Anni B Sweet musikari malagarraren ahots goxoa entzuteko aukera izango da, uztailaren 4an. Folk, indie eta pop doinuak kantatuko ditu Anni B Sweetek, eta aurten kaleratu duen *Chasing illusions* diskoa aurkeztuko du.

Uztailaren 5erako, *Mozkorra parregarri* opera komikoa eskaintzera etorriko dira ikusizunaren moldaketa egin du-

ten bergararrak Musikaireira. Xabier Maria Munibe Peñafloredako Kondeak XVIII. mendean idatzi zuen obran oinarriturik egokitu dute egileek "historiako euskarazko lehenengo operaren" moldaketa. Tola jauregian izango dira uztailaren 3ko, 4ko eta 5eko hitzorduak.

Ohi bezala, Euskal Herriko zein munduko beste leku batzuetako kulturen erakusle dira Elorrioko Musikaire emanaldiak. Programazio eklektikoa, aniztasunean oinarriturikoa osatu dute, kalitate goreneko kultur emanaldiak entzuleei doan eskaintzeko.

Uztailko gauetan, gozatze-ko aukera izango da Gabacho Maroconnection taldearen ekialde eta mendebaldearen lotura musikagaz, Sierra Leonan sortutako reggaeagaz, Aziza Brahim sahararraren poesiagaz eta ahots iradokitzailagaz, Xabi Aburruzaga trikitilari bertuosaren saioagaz, Hondurasko Aurelioren birtutez garifunaren tradizioagaz, Arizona Baby eta Los Coronas taldeen uztartekatit sortutako Corizonas taldearen country folk eta rockagaz, eta Oreka TX taldeko Harkaitz Martinez de



Nigerreko tuareg kulturaren hazitako Omara Moctar 'Bombino' gitarrista bertuosoa eta bere bandak joko dute, uztailaren 3an.

San Vicente eta Mikel Ugarte txalapartarien eta euren taldearen *Silex* lanagaz.

Antzerkia eta dantza

Uztailaren 26an, 19:00etan hasiko den mikroantzerki emanaldiagaz emango dute jaialdia amaitutzat. Izan ere, musika ez beste hainbat kultur adierazpideren erakusleku ere bada Musikaire: dantza eta antzerki garaikidea, kasurako. Uztailaren 26an, Javier Arandaren *El tiranicida*, Eduardo Hernando eta Raúl Camino aktoreen *Boxers*, eta Trino Teatro taldearen *Mait(K)ale borroka* izango dira Elorrioko mikroantzerki emanaldi horretan ikusgai.

Antzerki klasikoa eta dantza garaikidea ere izango dira, bestalde, Musikaire jaialdian: Teatro Corsario eta Kukai eta Lasala taldeen eskutik, hurrenez hurren. *Clásicos có-*

micos antzezlan eskainiko du Valladolideko Teatro Corsario konpainiak. *Sorbatza* eta *Gelajauziak* ikuskizunak eskainiko ditu eskainiko ditu Kukaik, eta *Lauesku* izenburuko lana plazaratuko du Lasala

konpainiak. Uztailaren 19an, 19:00etan, izango da emanaldia.

Gainera, azken urteetan bezala, Elorrioko argazkilarien lanekin tamaina handiko horma irudi bat ipini dute plaza ondoko eraikin baten fatxadan.

UZTAILAREN 3an

22:30ean, Bombino, Tola jauregian.

UZTAILAREN 4an

22:30ean, Anni B Sweet, Tola jauregian.

UZTAILAREN 5ean

19:00etan, 'Mozkorra parregarri' opera komikoa, Tola jauregian.

UZTAILAREN 10ean

22:30ean, Gabacho Maroconnection, elizpean.

UZTAILAREN 11n

22:30ean, Sierra Leone's Refugee All Star, elizpean.

UZTAILAREN 12an

22:30ean, Clásicos cómicos, elizpean.

UZTAILAREN 17an

22:30ean, Aziza Brahim, Lariz jauregian

UZTAILAREN 18an

22:30ean, Xabi Aburruzaga, Lariz jauregian.

UZTAILAREN 19an

19:00etan, Kukai + Lasala taldea, plazan.

UZTAILAREN 24an

22:30ean, Aurelio, elizpean.

UZTAILAREN 25ean

22:30ean, Corizonas, elizpean.

UZTAILAREN 26an

19:00etan, mikroantzerkiak, Casajara jauregian.
22:30ean, Oreka TX, elizpean.

Londresko Perhaps Contraption taldekoek irabazi dute X. Haizetara

Joan zen asteburuan, Zornotzako Haizetara kaleko musikaren lehiaketa izan zen



Iazko irabazleak, Perhaps Contraption taldeak, irabazi du aurreko bederatzi edizioetako irabazleen arteko lehia.

> LEHIAKETA

Iaz, Zornotzako IX. Haizetara lehiaketa irabazi zuen Londresko (Ingalaterra) Perhaps Contraption taldeak irabazi du jaialdiaren hamargarren edizioeko sari nagusia. Domekan banatu zituzten sariak, eta 12.000 euroko sari nagusia Londresko talde horri eman zion musikaren arloko profesionalak osatutako epaimahaia.

Berezia izan da aurtengo edizioa; lehiaketak hamar urte bete dituela eta, 2006tik hona saritutako bandek parte hartu dute, eta entzungai izan den musikaren kalitatea oso ona izan da.

Giro ederra sortu zen, asteburuan, Haizetara musika lehiaketa izan zen egunetan, Zornotzan

12.000 euroko sari nagusiaz gainera, herritarrek aukeratutako taldeari ere eman diote saria. The What Cheer? Brigade AEBetako taldeak jaso du entzu-

leen eskutik 5.000 euroko saria. Bestalde, Interklabe enpresak instrumentatarik onenari 1.500 euroko saria eman dio: No Water Please taldeko François Piriou izan da irabazlea.

Jaialdi honetan ohitura den bezala, antolatzaileek lehiaketan parte hartzera gonbidaturiko nazioarteko taldeez gainera, beste hainbat taldek ere parte hartu zuten asteburuko jaialdian; lehiaketatik kanpo, kaleak musika biziz betetzen lagundu zuten Fanfare Petard taldeak, zein Durangaldeko Zubiaur Band, Sugarri eta Zaparrada taldeek. Gainera, parte hartu gura izan zuten musikari guztientzat zabalik egon ziren Harrison hoteleko *jam session* saioak.

Giro ederra sortu zen, asteburuan, Haizetara jaialdiko egunetan, Zornotzan. Eguraldia ere lagun, herriko kaleak eta plazak nazioarteko banden musikaz gozatzera gerturaturiko jendez bete ziren, bariku, zapatu eta domekan, eta jaialdiaren hamargarren edizioaren oso balorazio positiboa egin dute antolatzaileek.

Jon Díaz de Cerio Urain | Durango, 1989

“Txinan, Gobernuak diruz laguntzen die futbola ikasgai duten eskolei”

Jon Díaz de Cerio durangarra futbol irakasle dabil Txinako ikastetxeetan; Txinak interes berezia du futbolean, 2030eko Munduko Futbol Txapelketa antolatzea lortu, eta maila ona eskaini gura duelako

> FUTBOLA Joseba Derteano
Jon Díaz de Cerio Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian lizentziatua da, eta enpresa kudeaketaren arloko master bat egina du. Hemen lanik bilatu ezin, eta Txinako eskaintza bat onartu zuen. Orain hango gaztetxoei futbolean jokatzeko irakasten dabil.

Zelan sortu zitzaizun Txinara joateko aukera?

Masterra amaitu nuenean eta Bartzelonatik itzuli nintzenez, hainbat webguneren bidez, enplegua bilatzen saiatu nintzen. Baina urte bian behin-behineko enpleguak bakarrik aurkitu nituen. Apirilean, eskaintza bat aurkitu nuen Internet bidez, eta eskakizunak betetzen nituela ikusi nuen. Segituan jarri ziren nigaz hartu-emanetan, eta lan elkarrizketa biren ostean onartu egin ninduten.

Asko kostatu zitzaizun erabakia hartzea?

Egia esanda, ez zitzaidan askorik kostatu. Aukera ona zela ikusi nuen, eta, Durangon, egungo egoera aldatzeko zantzu askorik ikusten ez nuen, aukera berri hori probatzea erabaki nuen. Datorren urteko urtarrilaren 15era arte dut kontratua. Txinan orduan amaitzen da ikasturtea. Gero, ostera, ikusiko dugu zer gertatzen den.

“*Futbolari buruz hankekin eta baloi batez jokatzeko delako zekiten, ezer gutxi gehiago*”

Orain, Laixi herrian zaude, eta eskoletan futbol irakasle zabilzta. Zein da zure egitekoa?

Adin askotako gazteekin nabil. Gazteenek 9 bat urte dituzte, eta nagusienek 16. Normalean, astean eskola bi ditut talde bakoitzagaz. Ordu eta erdiko ohiko entrenamenduak dira; mutilak eta neskek, biak elkarrekin. Entrenamenduak oinarrikoak dira, maila baxua dagoelako: motritate ariketak, koordinazioa eta baloiaren jabetza lantzen ditugu. Apurka-apurka gauza gehiago sartzen joango gara.

Futbolaren oinarrien gaineko zer jakintza dute gazteek?

Martxoan, Europako entrenatzaile bi etorri ziren. Orduan, umeek ez zekiten futbola zer zen ere. Hankekin eta baloi batez jokatzeko delako zekiten, eta ezer gutxi gehiago. Telebistan ere futbola sekula ikusi gabeak ziren asko. Orain, gutxienez, oinarriko arauak ikasi dituzte, eta baloiagaz apur bat moldatzen

hasi dira. Hala ere, oraindik alde izugarria dago Europako eta hemengo egoeraren artean.

Laixi futbol taldeko entrenatzaileak ere bazara.

Orain hiru aste sortu zuten taldea da. Ume txikiekin hasi gura dute. Ikastetxeetan entrenatzen ditugun jokalariek onenak taldera batzea da asmoa. Hala ere, taldea sortu duen enpresak negozio bezala ikusten du, eta izen-emate kuota nahiko altua da. Ondorioz, gaztetxoak erakartzea kostatzen dabilkigu, eta oraindik gutxiagaz gabiltza.

Zergatik dute futbola gazteengana zabaltzeko horrelako interesa?

Txinako presidentea futbolzale amorratua da. 2030ean Munduko Futbol Txapelketa antolatzea eta bertako selekzioak maila ona eskaintzea ahalbidetuko liekeen epe luzeko plan bat abiatu gura dute. Oraingoan, jakin dudana da Gobernuak diru-laguntzak ematen dizkiela ikasgaitzat futbola duten ikastetxeei. Beraz, eskolak emateko enpresak sortu dira, eta nik horietako batean lan egiten dut.

Txineraz komunikatzen zarete?
Ez dakit txineraz. Keinuen bidez edo hemen ikasitako berba batzuen bidez komunikatzen gara. Ingelesa eta txinera dakien langile bat dugu, eta eskola batzuetan gugaz egoten da. Kanean

gaitzagoa da, dena da keinua eta interpretazioa. Batzuetan desesperatu egiten naiz, gaitz egiten zaidalako komunikazioa.

Oro har, zelako harrera egin dizute?

Ni heldu nintzenez, ukrainar, suediar eta espainiar batek, dagoeneko, denbora zeramaten hemen, eta egoerara egokitzeko lagundu zitaduten. Txinatarrei ulertzea gaitzago egiten zait hizkuntzagatik. Hala ere, gustura nago.

Orain arte, Txinako zerk erakarri du zure arreta?

Hemen edozein toki ona dela negozio bat abiatzeko. Ile-moztai-leak ikusi izan ditut espaloian, aulki batez eta ispilu baten aurrean lanean. Podologoak ere ikusi ditut modu berean lanean.

Zer da Euskal Herritik faltan gehien botatzen duzuna?

Oraingoan etxeko janaria. Hotel batean nago, eta egunero etxetik kanpora jan behar dut. Nire gustuko janaria aurkitzea ez da erraza, beraz, oraingoan, nire dieta ez da oso zabala.

Zure horko bizipenak blog batean idazten dituzu.

Senitartekoei nire gaurkotatzen berri jakin dezaten okurriratu zaidan ideia bat da. Jendearen interesekoa dela ikusten badut, noizean behin idazten jarraituko dut. Nire blogaren helbidea www.mifutboldesdechina.com da, eta denak gonbidatu gura ditut iritzia ematera.

Durangoko Kultureko zer oroitzen gordetzen duzu?

Esperientzia positiboa izan zen. Azken denboraldian kadeteak entrenatu nituen. Urte gaitz batetik zetozen, eta ez genekien zer eman genezakeen. Hala ere, oso ondo hasi, eta azkenera arte igotzeko aukera izan genuen.



Jon Díaz de Cerio, Txinan ikasle dituen gaztetxoekin.

Mikel Gonzalez onenen artean dabil Ipar Euskal Herriko trinketean

Gaur egun, partidurik gehienak han jokatzeko dituzte, eta modalitateko onenekin lehiatzen dabil



Mikel Gonzalez (behean, ezkeretik bigarren), Donibane Lohizuneko txapelketan.

> TRINKETA Joseba Derteano Ipar Euskal Herria trinketaren erresuma da, eta Mikel Gonzalez (Berriz, 1984) gero eta finkatuago dago hango zirkuituan. Gero eta partidu gehiago jokatzeko dituzte, gero eta maila handiagoko txapelketetan. Baina badu gorago egiteko modua, eta horretan buru-belarri saiatzeko prest dago.

Hainbat urte dira Iparraldean trinket partiduak jokatzeko hasi zenetik. Hasieran bi-hiru hilerik behin jokatzeko zuten, eta "gaitza zen, Iparraldeko jokamoldea diferentea delako". Gainera, Bizkaiko pilotari bat izanik, "lupagaz" aztertzen zuten: "Ondo jokatu edo maila eman ezik, bagenekien berriro ez deitzeko arriskua zegoela".

Baina apurka-apurka hango jokamoldera egin da: "Aukerak ematen dizkirate, eta horregatik esker oneko nago. Banekien partidu batzuk jokatzeko hasiz gero, Ipar Euskal Herriko jokamoldera moldatzen hasiko nintzela, eta horrela gertatu da, nire mailak gorakada izan duelako. Gehiago jokatu ahala, konfiantza irabazten da". Horrela, emaitza onak ere heltzen dabilta apurka-apurka. Orain hiru aste Baionako Alde Zaharreko saltokien elkarteak antolatutako binakako txapelketa irabazi zuen, Pascal de Ezkurragaz bikotea osatuta. Astelehen honetan, aldiz, atzelari beragaz Donibane Lohizuneko jaietako txapelketako txapeldunorde geratu da: "Trinketa zalez gainezka egon zen, eta partidu ona jokatu genuen. Beharbada ez da ulertzeko erraza, baina galdu arren, pozik nago", dio, badakielako zaleen onspenak ia txapelak besteko garrantzia duela.

Gaur egun, Hego Euskal Herrian gutxi jokatzeko du, eta Iparraldean gero eta gehiago. Aurrera begira, txapelketarik inportanteenetan muturra sartzea du helburu. Horretarako, datorren urtean Frantziako Txapelketan parte hartzen saiatuko da, buruz buru zein binakako, antolatzaileek, batez ere, txapelketa horretan nabarmendutako eskaintzen dietelako aukera.

Miribillara begira egongo gara pilota maite dugun asko eta asko, nahiz eta, nire kasuan (beste asko bezala), amorruez. Amorruez gauzak ondo egiten ez direlako. Begiko dut Mikel, baina ez dut uste finala jokatu beharko lukeenik, ez kirol irizpideak balira kontuan hartu beharrekoak. Tamalez, pilota profesionalean, hori azken argudioa da. Euroek agintzen dute, eta hori soilik denean helburu, akabo. Dena den, izan dadila zaratamarra finalerdia galdu, eta izango dugun lehen txapelduna! Animo!

la 400 parte-hartzaile, etzi, Sapubike martxan

Mugarra ingurutik antolatu dute ibilbidea

> MARTXA

Durango MTB taldeak IV. Sapubike Martxa antolatu du domekarako. Iaz legez, aurten ere parte hartze handia izango du; 388 dortsala banatu dituzte.

Mendiko bizikleta martxa 09:00etan hasiko da Tabirako parketik. Ibilbide osoa Mugarra ingurutik diseinatu dute: Marmol, Orozketa, Bitaino, Larrinagatu... Ahalik eta biderik korapilatsu, bihurri eta dibertigarrienak aukeratzeko saiatu direla adierazi dute antolatzaileek.

Segurtasun neurriak

Urtero legez, parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeari lehentasuna emango diote antolatzaileek. Izan ere, lau urteotan, joan-etorriak oztopatzeko, harriak eta enborrak aurkitu dituzte ibilbidean, baita alderik alderako alanbreak ere. Horrela, barikuan eta zapatuan, ibilbidea markatzen dabilzan bitartean, ibilbidea garbi dagoela egiaztatuko dute. Domekan, martxaren egunean, bidegurutzeetako arduradun bakoitzak bere eremua egiaztatuko du.

Oyarbide eta Aramendia Espainiako txapeldun

Kopa irabazi dute 23 urtez azpikoan eta kadete mailan

> TXIRRINDULARITZA

Azken urteetan, emakumezko txirrindularitzak habia fidagarria aurkitu du Durangaldean. Nagusietan zein harrobi mailan, hainbat talde daude eskualdeko, Euskal Herriko zein hemendik kanpoko txirrindulariez osatuta. Estatu mailan puntan dabilzan taldeak dira, eta horren erakusgarri da joan zen asteberuan amaitu zen Espainiako Kopa. 23 urtez azpikoan, Bizkaia-Durango taldeko Lourdes Oyarbide arabarra nagusitu da, eta, kadeteetan, CAF

Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia nafarra.

Aurtengo Espainiako Kopak sei lasterketa izan ditu apiriletik ekainera. Oyarbidek Avilako lehen lasterketan jantzi zuen liderraren elastikoa. Harrezkerok, lasterketaz lasterketa maila erregularra erakutsi du, eta azken unera arte elite mailako txapelketa irabazteko aukera izan du. Beste hainbeste esan daiteke Aramendiari buruz ere. Pontevedrako lasterketa irabazi du, eta, oro har, aurreko postuetan izan da beti.

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroitauregi

Pilota teknikaria

Errebotez baina...

Bizkaitar pilotazale askok go-goan izango du 1976. urtea, ordukoa da eta buruz buruko txapelketa nagusiko azken txapelketa. Durangaldeko bi pilotari izan ziren, gainera, finalean, biak ere Anbotoren magalean jaiotakoak. Asegarre enpresan hainbat lan egin, eta erretiroa hartu berri duen Roberto Garcia Ariño (bejondeiola) eta Iñaki Gorostiza. Bigarrena da Bizkaia emaniko lehen mailako azken txapelduna. Eta, domekan, errebotez bada ere, beste pilotari bizkaitar bat izan liteke txapeldun. Durangaldekoa ez, baina bertan denbora ugari pasatzen duena: Mikel Urrutikoetxea.

Miribillara begira egongo gara pilota maite dugun asko eta asko, nahiz eta, nire kasuan (beste asko bezala), amorruez. Amorruez gauzak ondo egiten ez direlako. Begiko dut Mikel, baina ez dut uste finala jokatu beharko lukeenik, ez kirol irizpideak balira kontuan hartu beharrekoak. Tamalez, pilota profesionalean, hori azken argudioa da. Euroek agintzen dute, eta hori soilik denean helburu, akabo. Dena den, izan dadila zaratamarra finalerdia galdu, eta izango dugun lehen txapelduna! Animo!

Zoriontzeko badugu durangaldean beste Mikel bat, Mikel Gonzalez berriztarra. Ezker horman profesional izateko saiakeretan ibili zen Asegarrekin, ez zioten aukera eman, eta bere bidea trinketera bideratu zuen orain bost-sei urte. Apustuak balio izan dio. Trinketari onenen artean muturra sartu duen Hegoaldeko lehen pilotaria da, eta ibilbide oparoa izan dezake. Horri ere, animo! Gainontzeko pilotariei ere gogoratu nahi diet, saiatuz gero, badaudela beste aukera batzuk ezker hormatik haratago.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

uda kalean bizi 2015
uztaila

9 OSTEGUNA 20:00	11 LARUNBATA 20:00	16 OSTEGUNA 21:30
Germán Díaz	Dikothomia	Velma Powell & Bluedays
<i>Método Cardiófónico</i>	<i>Spazi...O</i>	<i>Step into the Blues</i>
MUSIKA	ZERBU GARAITZIDA	MUSIKA
Kurutzesantu museoa	Musika Eskolako parkea	Andramariko elizpea
euriarekin: Kurutzesantu museoa	euriarekin: Merkatu plaza	euriarekin: Andramariko elizpea



JATETXE GIDA

ÑAM!

MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)

ÑAM!

JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077
Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4
Tel.: 946 030 300
Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!

PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 946 826 246
Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauean itxita.

ÑAM!

LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO
Tel.: 946 218 122
Etxeko pizzak. Eguneko menua,
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com

ÑAM!

IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
www.ibarra-sagardotegi.com
Tel.: 946 731 100
Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi
personarentzako menua zozkatuko dugu

Non ikasi du Ander Diez sukaldari durangarrak?

Zozketako irabazlea: **Roberto Arias** zorionak!
ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE ON!

Munduko Txapelketan ibilia den Triviño, Bizkaiko Balkoia rallyan

Ricardo Triviño mexikarra Peugeot 206 WRC autoagaz ibiliko da, bihar



Triviñok Jorge del Cid kopilotu duela jardungo du WRC autoaren gidari.

> AUTOMOBILISMOA J.D.

Bihar, Bizkaiko Balkoia rallyaren zazpigarren aldia lehiatuko dute, Durangalde Racing eskuderiak antolatuta. Aurtengo aldiak rallya oso erakargarri egingo duten osagaiak ditu: pilotu entzutetsuak, potentzia handiko autoak, parte-hartze handia, ibilbide berriak...

Guztira, 70 pilotuk parte hartuko dute rallyan, iaz baino hamabost bat gehiagok. Aurtengo aldiak luxuzko gonbidatu bat izango du: Ricardo Triviño. 42 urteko mexikarrak Munduko Txapelketako lasterketa askotan parte hartu zuen 2002tik 2013ra, eta hiru denboralditan erabili zuen Peugeot 206 WRC autoagaz ibiliko da bihar. Rallya

irabazteko faborito nagusien artean dago. Lea-Artibaiko rallya irabazi duen Xabier Lujua ere garaipena izango du buruan. Sergio Vallejo Espainiako Txapelketa irabazi zuenean gidatu zuen Porsche beragaz ibiliko da Lujua. Ander Learretak, eta iazko Euskadiko Txapelketako irabazle Ander Arana gernikarrak eta Iban Tarsicio abadiñarrak osatzen dute faborito euskaldunen zerrenda. Horiekin batera, Espainiako Txapelketan aritua den Surhayen Pernia kantabriarra ere kontuan hartzeko arerioa izango da.

Tarte berria

Egun osoan lau tarteri bina pasada emango dizkiote pilo-

tuek. Horietako bat, Trabakuan hasiko dena, nobedadea izango da aurten. Gereaa auzotik Boli-barrera joango dira pilotuak: tarte arina, bihurtunetsua eta teknikoa da, zaleei gustatzen zaien horietakoa, antolatzaileen esanetan.

TARTEAK-ORDUTEGIA

Goiuria-Oiz (10,9 km)

Irteerak: 09:31 / 11:25

Maguma (9,5 km)

Irteerak: 09:59 / 11:53

Gereaa-Bolibar (7,4 km)

Irteerak: 16:06 / 18:37

Bizkaiko Balkoia-Berroia (12,5 km)

Irteerak: 16:39 / 19:10

“Irabazten saiatzea izango da nire helburua”

Triviñok onartu du ibilbidea ez duela ia ezagutzen



Aurtengo Bizkaiko Balkoia rallyko interesguneetako bat Ricardo Triviño mexikarraren jarduna izango da. Munduko Txapelketan ibilbide luzea izan du. Bere posturik onena Mexikoko rallyko hamargarren postua izan da. 2006tik 2008ra gidatu zuen Peugeot 206 WRC autoan ibiliko da, Jorge del Cid pilotua kopilotu lanean izango duela.

Zergatik erabaki duzu Bizkaiko Balkoia rallyra etortzea?

Hainbat pilotu ezagun ditut hemen inguruan, eta nire arreba ere Portugaleten bizi da. Arreba bisitatu, eta rallyan parte hartzea pentsatu nuen.

Zu izan zinen antolatzaileekin hartu-emanetan ipini zena?

Egia esanda, hemen inguruan rally bat lehiatzeko gogoa neukan, eta, azkenean, lortu dut.

Jorge del Cidi eskatu nion mesede hori. Denak oso atsegin portatu dira nigaz. Ni etorriz gero, oso pozik jarriko liratekeela esan zidaten.

Ibilbidea ezagutzen duzu?

Ez dut ia ezer ezagutzen. Ingurutik behin ibili naiz, ohar batzuk hartzeko. Tarte oso politak eta, aldi berean, konplikatua iruditu zaizkit.

Irabaztea da helburua?

Pilotu oso arinak daudela esan didate, eta nik ere arin joan beharko dut, baina irabazten saiatzea izango da nire helburua. Pilak kargatu beharko ditut, eta dudan guztia eman beharko dut.

Jorge del Cid izango duzu kopilotu lanetan?

Lehenengoz ibiliko naiz bere gaz. Esperientzia duela esan didate. Bierzoko (León, Espainia) lasterketan pilotu postuan ibili zen, eta han ikusi nuen: azkar ibili zen. Hemen ere maila berdinean ibiltzea espero dut.

Rally honen ostean zer?

Costa Ricara joango naiz Nacam txapelketako proba batera. Ondoren, Espainiako Asturiako printzea proban parte hartuko dut.

“Areto futbol maratoia lagunak elkartzeko modu bat da”

Victor Maestro eta Roberto Terroba Zaldibarko areto futbol maratoiko antolatzaileak eta Zaldia futbol taldeko zuzendaritza berriko kideak dira



Victor Maestro eta Roberto Terroba.

> ARETO FUTBOLA

Udako areto futbol maratoiek arrakasta handia dute eskualdean. Berrizkoaren ostean, asteburu honetan, Zaldibarko maratoien txanda izango da. Gaur arratsaldean hasi eta datozen 48 orduetan, Zaldibarko kiroldegia irekita izango ditu ateak etenik gabe.

Areto futbol maratoien arrakasta azaltzeko hainbat hipotesi dituzte Victor Maestro eta Roberto Terroba antolatzaileek. Talde irabazleak jasoko dituen 800 euroak amu erakargarria direla uste du Terrobak. Eguraldiak ere eragiten du Maestoren ustez: “Azaroan antolatuz gero, ez luke horrelako arrakastarik

izango, baina udan jendea animatu egiten da batera zein bestera joaten”.

Iaz hamasei taldek eman zuten izena, eta aurten ere kopuru horren bueltan ibiltzea espero dute. Batzuk areto futboleko dabilzan jokalariek osatutakoak dira. Horiek maratoiz maratoi ibiltzen dira, eta, Terrobaren esanetan, “irabazteko grina” sumatzen zaie. Beste talde asko ez dira hain “profesionalak”, eta lagunartean ondo pasatzea beste helbururik ez dute izaten.

